



Miresmena

1

Begiratu Emoziotegiko 80-81. orrialdeetako irudiari, eta erantzun galderei.

- Zertan ari da ezkerreko pertsonaia?

- Zertan ari dira gainerako pertsonaiak?

- Zer iruditzen zaie eskuinean dauden pertsonaiei ezkerrekoa egiten ari dena? Markatu egokiak iruditzen zaizkizun aukera guztiak.

zoragarria

erraza

bikaina

aspergarria

dibertigarria

inozoa

harrigarria

sinestezina

sinplea

2

Idatz itzazu zure aitak edo amak egiten dakizkien eta zuri zoragarriak iruditzen zaizkizun gauzak.

3

Irakurri Emoziotegiko 80. orrialdeko testua, eta erantzun.

- Zer pertsonak eragiten digute miresmena? Idatzi testuan agertzen ez den adibide bat.

- Zer gauza mirets ditzakegu besteengan?

- Zerk ematen digu besteak mirestekoa aukera?

4

Irakurri arretaz ondoko definizio hau, eta idatzi Emoziotegiko 80. orriko testuko zer hitzi dagokion.

Zerbaiten edo norbaiten garapenerako eragozpen edo oztopo den gabezia.

.....

- Idatzi zuk dituzun gisa horretako bi eragozpen.

5 Idatzi.

- Zuk dituzun eta zure lagunik onenak ez dituen bi ezaugarri on.

- Zure lagunik onenak dituen eta zuk ez dituzun bi ezaugarri on.

- Zure amak egin ditzakeen eta zuk egin ezin dituzun bi gauza.

- Zuk egin ditzakezun eta zure amak egin ezin dituen bi gauza.

6 Azaldu nola adieraz dezakezun zure **miresmena**.

7 Begiratu zure ingurura, eta idatzi beste pertsonak badituzten eta zuk ez dituzun bost gaitasun.

Adibidez: *Nire lagun Andoni oso ona da oahcan.*

● Gustatuko litzaizuke gaitasun horietako batzuk izatea? Zein?

● Gaitasun horiek dituzten pertsonak miresgarriak direla uste duzu? Zergatik?

● Beste zer gaitasun izan nahi zenituzke? Zer egiteko prest zeundeke gaitasun horiek lortzeko?

8

Idatzi zerrenda batean **miresgarriak** iruditzen zaizkizun gauzak, eta ordenatu miresgarrietik miresmen gutxien eragiten dizunera.

1. _____

2. _____

3. _____

4. _____

5. _____

6. _____

7. _____

8. _____

9. _____

10. _____

9

Erantzun galderei.

● Zer ezaugarriengatik mirets zaitzaten nahi zenuke?

● Zer egin behar duzu hori lortzeko?



Miresmena

OHARRAK

Emoziotegiko jarduera-fitxak *Esan zer sentitzen duzun* ibilbidearen parte dira. Ibilbideari buruzko informazio gehiago lortzeko eta fitxa gehiago eta beste material batzuk ikusteko, mesedez, sartu helbide honetan: http://www.palabrasaladas.com/f/emo_eus.html.